


## Gasteiz da buru euskal hiriburuetan Internet erabiltzeko orduan

### *Euskal AEko eskualdeetan Plentzia-Mungia dago aurrena, biztanleen %72*

Gasteiz -15 urte eta gehiagoko pertsonen %68,9- dugu aurrena internauten kopuruan; Donostian %66,5 dira eta Bilbon %63,4, Eustaten datuen arabera. Euskal AEko batez bestekoa, %65,8.

Internet erabiltzaile gizonezkoak emakumeak baino gehiago dira hiru euskal hiriburuetan. Bilbon da genero-alderik handiena (ehuneko 11,6 puntu); gizonen arteko %69,6, emakumeen arteko %58,0. Donostian 10,6 puntukoa da aldea: gizonen %72,2, emakumeen %61,6. Gasteizen txikiagoa, 7,4 puntu: gizonen %72,6, emakumeen %65,2.

#### 15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, lurralde-eremuka (%)



Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta / Euskal Aeko familiak

Bizkaian Plentzia-Mungia (%72,0), Gipuzkoan Bidasoa beherea (%66,9) eta Araban Gorbeia inguruak (%70,5) dira internautarik gehieneko eskualdeak.

Gutxien dituztenak: Debabarrena (%63,6) Gipuzkoan; Arratia-Nerbioi (%62,6) Bizkaian eta Arabako mendialdea (%55,7).

Euskal AE osoan Plentzia-Mungiak, Bizkaian, du internauta-portzentajerik handiena, %72,0. Kontrako aldean, portzentajerik txikiena (%55,7), Arabako mendialdean.

Gipuzkoak du eskualde arteko orekarik handiena, eta alderik handienak, Arabak. Arabako mendialdean internautak %55,7 dira, Gorbeia inguruetan (%70,5) baino 14,8 puntu gutxiago.

---

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- prentsa ohar gehiago*

*Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- datu bankua*